

ANIVERSARIO DEL ESTATUTO DE GERNIKA

Amigos y amigas, bienvenidos y gracias a todos por estar aquí, y gracias especialmente a Mario, a Libertad, a Nekane y a Sergio por las palabras que nos han dirigido, que resumen magníficamente el espíritu con el que los Socialistas nos encontramos hoy aquí:

Porque hoy, 25 de Octubre, celebramos el vigésimo noveno aniversario de la aprobación en referéndum de nuestro Estatuto de Autonomía. Un día en el que conmemoramos la recuperación del autogobierno vasco, en el marco general del restablecimiento de las libertades y de la democracia en España.

Es, por lo tanto, un día de alegría y de esperanza. Un día en el que los Socialistas queremos reafirmar la vigencia del Estatuto y el valor de sus potencialidades para avanzar como país y como sociedad.

Queremos reafirmar el valor del Estatuto como marco de convivencia democrática, porque define una Euskadi en la que cabemos todos, porque respeta la pluralidad y diversidad de la sociedad vasca, sin discriminaciones ni divisiones ficticias.

Porque es el Estatuto, lo que constituye a Euskadi como comunidad política, dotándonos de una capacidad de autogobierno tal que nos permite, desde nuestras propias instituciones, decidir sobre los asuntos que afectan a prácticamente todos los ámbitos de nuestra vida política, económica, social y cultural. Es el Estatuto el instrumento que garantiza nuestro derecho a decidir.

Y queremos, por todo ello, que éste sea un día de reencuentro democrático entre vascos y vascas. Un día para poner en valor lo que hemos venido construyendo juntos a lo largo de casi treinta años.

Y que sea también un día de recuerdo y de homenaje a todas las víctimas del terrorismo, asesinadas precisamente por representar y defender la Libertad, la convivencia y los valores democráticos que ese Estatuto contiene, con la esperanza puesta en que, más pronto que tarde, podamos conseguir un futuro para Euskadi sin la hipoteca de ETA y de la violencia.

Pero además, quiero dejar bien claro que estos 29 años de autogobierno estatutario representan la Euskadi más auténtica; la Euskadi que nace y avanza con el pacto y el acuerdo entre diferentes. Me habéis oído repetir muchas veces esa frase de Jesús Eguiguren de que “El Estatuto tiene cuerpo de Ley pero alma de Pacto”, del triple acuerdo: entre vascos que pensamos de manera diferente, entre los territorios y entre las instituciones vascas y entre éstas y las del conjunto de España.

Ésta es la Euskadi real, la que ha surgido del acuerdo. Y esa es la Euskadi que yo quiero para el futuro, la que se construye entre todos y no unos contra otros. Esa es la única posibilidad de seguir avanzando y existiendo.

Porque si Euskadi existe hoy, es porque dos veces en su historia sus hombres y mujeres fuimos capaces de establecer un pacto interno:

En 1936, gracias al acuerdo entre Indalecio Prieto y José Antonio Aguirre, que dio origen al primer Estatuto de autonomía.

Y en 1979, gracias al acuerdo entre diferentes que hizo posible el Estatuto de Gernika.

Todos tenemos que reflexionar sobre el significado de esos dos momentos históricos de importancia indudable para Euskadi. Dos momentos históricos que nos están diciendo algo definitivo: que la sociedad vasca avanza y se constituye en sujeto político sólo cuando es capaz de reconocerse y respetarse en sus diferencias internas y es capaz de pactar.

Ésa es la Euskadi que los Socialistas no queremos perder, sino que, por el contrario, ansiamos recuperar y estamos dispuestos a recuperar.

La Euskadi estatutaria que los vascos y vascas apoyamos en las urnas y que otros quieren dar irresponsablemente por acabada. Los Socialistas seguimos en el Estatuto. Otros proponen abandonarlo, sin decir claramente adónde quieren llevar a esta sociedad.

Y son precisamente quienes quieren abandonar la vía estatutaria los que nos acusan a los Socialistas de incumplir el Estatuto. Pero no tienen credibilidad, porque hace nueve años rechazaron en el Parlamento Vasco una propuesta Socialista para completar el desarrollo estatutario, diciendo que el Estatuto era una carta otorgada, cuyo único valor residía en tener una puerta de salida; y que no era ya el momento de debatir sobre transferencias, sino sobre el “ser para decidir” que defendían entonces.

Y son los mismos que hace cuatro años rechazaron nuestra oferta de abordar una reforma estatutaria consensuada entre todas las fuerzas políticas vascas.

Nos acusan de incumplir el Estatuto los mismos que lo han venido deslegitimando sistemáticamente en todos estos años. Los que lo han gestionado durante muchos años y ahora, para ocultar sus propios fracasos, nos quieren convencer de que Euskadi es un campo de concentración rodeado de alambradas.

Pero para no quedarme sólo en las palabras, en esta fecha, histórica para el país, yo quiero asumir compromisos con la sociedad vasca, con sus libertades y con sus ansias de progreso.

Un compromiso renovado con el Estatuto, con nuestro marco de autogobierno. Con un marco de autogobierno sólido y respaldado por una inmensa mayoría del país.

Un marco de autogobierno que ha resistido los embates de un terrorismo totalitario y desestabilizador. Y que ha resistido, igualmente, las aventuras de quienes han pretendido llevarnos a un callejón sin salida.

Y por eso, me comprometo, cuando sea Lehendakari, a llamar a todas las fuerzas políticas democráticas para abordar la actualización y reconstrucción del pacto estatutario.

Llamaré a todas las fuerzas políticas para recuperar los acuerdos perdidos y abordar una reforma estatutaria, si existe consenso para ello:

- 1º.- Para dejar claro, en la exposición de motivos, que no partimos de cero, sino de un Estatuto que nos ha aportado progreso y modernidad y que deseamos mejorar en clave de más democracia, más libertad, más derechos de ciudadanía para la sociedad vasca y más voluntad de deslegitimar ética, social y política del terrorismo.
- 2º.- Para dejar claro que la **ciudadanía**, fuente y receptora de derechos y deberes, concepto que nos hace iguales y que cohesiona a la sociedad vasca, constituye el principio y el fin de nuestro sistema de autogobierno; y que la igualdad política y social, que excluye cualquier tipo de discriminación, debe figurar en el frontispicio de un Estatuto renovado y con verdadera proyección de futuro.
- 3º.- Para zanjar de forma definitiva los desacuerdos sobre competencias y establecer claramente las fórmulas para la consecución definitiva de las transferencias que acordemos; así como para adaptar los mecanismos estatutarios a las nuevas realidades políticas y sociales.
- 4º.- Para poner nuestro Estatuto al día, tal como se ha hecho en la reforma de los Estatutos de Andalucía o de Cataluña, buscaremos la fórmula, a través del consenso y la legalidad, para hacer factible la consulta a la ciudadanía en aquellas materias que sean de nuestra competencia, acabando con la discusión, interesada y mal planteada por el Gobierno tripartito, sobre nuestra capacidad de consulta.
- 5º.- Para no ahorrar esfuerzos en la recuperación del pacto y actualización del compromiso estatutario, utilizando para ello los recursos extraordinarios que contienen la Constitución y el Estatuto, en su referencia a los derechos históricos de los territorios forales.

Es decir, me propongo impulsar una reforma estatutaria, que culmine, como marcan nuestras normas, en un referéndum confirmatorio de la sociedad vasca, basada en las necesidades reales del país y alejada de caprichos partidistas.

Yo no quiero el autogobierno para satisfacer orgullos localistas de vuelo corto o para estar todo el día de bronca con el Gobierno central.

Yo quiero el autogobierno para hacer posible que este país avance. Para vivir mejor todos. Para garantizar las libertades, la seguridad, los derechos de ciudadanía y el progreso económico y social de todos los hombres y mujeres que viven y trabajan en Euskadi.

Yo quiero el autogobierno que garantiza el Estatuto para construir país y construir sociedad, y no para seguir enzarzándonos en querellas inútiles sobre el ser o no ser de los vascos.

Yo quiero y me comprometo a legitimar socialmente el Estatuto, utilizando para ello todos los instrumentos y recursos que nos proporciona, todas sus inmensas potencialidades, para transformar el país y para que todos vivamos mejor.

- Yo quiero el Estatuto para unir a los demócratas y liderar la defensa de las libertades y la deslegitimación ética, social y política del terrorismo de ETA.
- Yo quiero el Estatuto para sumar ciudadanos y ciudadanas, para sumar identidades y ampliar los consensos; para seguir avanzando en la construcción de un país de todos y para todos, mediante el diálogo, el pacto y el acuerdo.
- Yo quiero el Estatuto para avanzar en la Euskadi social y en la ampliación de los derechos y libertades de la ciudadanía vasca.
- Yo quiero el Estatuto para enfrentarnos con decisión a la crisis económica, impulsando el diálogo con empresarios y sindicatos para buscar diagnósticos compartidos y compromisos de avance social, en el marco de una economía moderna, sostenida en la productividad, la innovación y el conocimiento.
- Yo quiero, en fin, un Estatuto que sirva para vertebrar y cohesionar al país y para impulsar políticas de creación de empleo, de construcción de vivienda social, de revitalización de nuestro sistema educativo, de apuesta por las infraestructuras y la modernización, de apoyo a la Sanidad Pública. Un nuevo Estatuto para la Euskadi real del Siglo XXI.

Y quiero, además, un Estatuto para vivir en una Euskadi sin fronteras, abierta al mundo. Hay quienes quieren utilizar el autogobierno para poner puertas a Euskadi.

Yo quiero utilizar los instrumentos y recursos que nos concede el Estatuto para colocar a Euskadi en el ámbito en el que siempre hemos estado y queremos seguir estando los vascos.

Porque hay quien quiere que Euskadi se mire en el espejo de Kosovo. Y yo quiero que Euskadi siga mirando a la España plural y a la Europa cada vez más unida que estamos construyendo entre todos.

Amigos y amigas:

Quiero acabar como empecé, reivindicando el Estatuto como algo vivo y útil. Como una realidad dinámica pensada para resolver problemas, y no para dejar que se perpetúen; para abrir puertas, y no para cerrarlas; para tender puentes de diálogo, y no para cavar trincheras; para pasar definitivamente una página negra de nuestra historia reciente, marcada por el enfrentamiento, y volver a la senda del diálogo, la colaboración y el entendimiento entre diferentes.

Reivindico, en definitiva, el Estatuto, al que auguramos larga vida, como factor de estabilidad, seguridad, libertad y progreso para la sociedad vasca y para Euskadi.

He venido hoy aquí con un mensaje de unidad y no de imposición. Como de la que hizo gala, en su día, el PNV imponiéndonos a todos el himno de su partido como himno oficial de nuestra Comunidad.

No voy a entrar en guerras de símbolos y banderas, pero qué duda cabe, de que hay otro canto a las libertades que está en el corazón de todos los vascos y de todas las vascas y que a mí me gustaría que formara parte también de nuestro acerbo simbólico y que os animo a escuchar: el Gernikako Arbola.

GERNIKAKO ESTATUTUAREN URTEURRENA

Lagunok, ongi etorri eta eskerrik asko guztioi hemen egoteagatik, eta bereziki eman nahiko nizkieke eskerrak Mario, Libertad, Nekane eta Sergiori, eskaini dizkiguten hitzengatik, gaur hemen gauden Sozialiston espiritua modu ezin hobean laburbildu dute eta:

Gaur, urriaren 25ean, geure Autonomia Estatutua erreferendumean onetsi zen egunaren hogeita bederatzigarren urteurrena ospatzen ari gara. Gaur Espainian askatasuna eta demokrazia ezartzen ari zen esparru orokorrean autogobernua berreskuratu izana gogoratzen dugu.

Beraz, poz eta itxaropenezko egun bat da. Gaur Sozialistok Estatutuaren indarraldia berretsi nahi dugu, baita herrialde eta gizarte gisa aurrera egiteko dauzkan gaitasunen balorea azpimarratu ere.

Estatutuak bizikidetza demokratikoko eremu gisa daukan balorea berretsi nahi dugu guztiontzako lekua daukan Euskadi bat definitzen duelako eta diskriminazio edo Euskadiko gizartearen aniztasuna fikziozko bereizkeriarik gabe errespetatzen duelako.

Estatutua baita Euskadi erkidego politiko gisa osatzen duena, eta ematen digun autogobernu gaitasunari esker, geure erakunde propioetatik geure bizitza politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturalaren ia esparru guztietan erabakitzeko gai gara. Estatutua erabakitzeko eskubidea daukagula bermatzen duen tresna da.

Eta hori guztia dela eta, hau euskaldunen arteko topaketa demokratikoko egun bat izatea nahi dugu. Ia hogeita hamar urtetan elkarrekin eraiki duguna baloratzeko egun bat.

Eta terrorismoaren biktima guztiak gogoratzeko eta haiei eskainitako omenaldi egun bat izan dadila ere, Askatasuna, bizikidetza eta Estatutuan jasotako balore demokratikoak defendatzeagatik eta horien ordezkari izateagatik hil baitzituzten, eta laster Euskadirentzako ETA eta indarkeriaren hipotekarik gabeko etorkizun bat lortu ahal izatea espero dugu.

Bestalde, argi utzi nahi dut estatutu bidezko autogobernua izan dugun azken 29 urte hauek direla benetako Euskadiren adierazgarrienak, desberdinak direnen arteko ituna eta adostasunarekin jaio eta aurrera egiten ari den Euskadirenak. Sarritan errepikatu dut Jesús Egigurenen esaldi bat: "Estatutuak Legeen gorputza eta Itunaren arima dauka", akordio hirukoitzari buruz, hau da, desberdin pentsatzen dugun euskaldunen artekoa, lurraldeen artekoa eta euskal erakundeen artekoa, eta horiek eta Espainiaren artekoa.

Horixe da benetako Euskadi, adostasunetik sortu dena. Eta horixe da nik etorkizunerako nahi dudana Euskadi, bata bestearen kontra beharrean, guztion artean eraikitakoa. Hori baita aurrera egiteko eta existitzen jarraitzeko aukera bakarra.

Bere historian bi aldiz gizon eta emakumeok barneko itun bat ezartzeko gai izan ginelako existitzen da Euskadi gaur egun:

1936an, Indalecio Prieto eta José Antonio Aguirreren arteko itunari esker, horren ondorioz, lehenengo autonomia Estatutua sortu baitzen.

Eta 1979an, Gernikako Estatutua egitea ahalbidetu zuen desberdinen arteko adostasunari esker.

Guztiok hausnartu behar dugu Euskadirentzako zalantzarik gabe garrantzitsuak izan diren une historiko bi horien esanahiaz. Izan ere, une historiko bi horiek argi adierazten digute euskal gizarteak aurrera egiten jarraitzen duela eta subjektu politiko gisa onartzeko ezinbestekoa dela barneko desberdintasunak onartu eta errespetatzea eta adostasun batera iristeko gai izatea.

Horixe da, hain zuzen, Sozialistok galdu nahi ez dugun Euskadi; alderantziz, Euskadi hori berreskuratu nahi dugu eta horretarako prest gaude.

Euskaldunok hauteskundeetan Euskadi estatutarioaren alde egiten dugu, baina beste batzuek modu arduragabea bukatutzat jo nahi dute. Sozialistok Estatutuaren alde jarraitzen dugu. Beste batzuek alde batera uztea proposatzen dute eta ez dute argi uzten nora eraman nahi duten gizarte hau.

Estatutuen bidea utzi nahi dutenak dira, hain zuzen, Sozialistoi Estatutua urratzea leporatzen digutenak. Baina ez daukate sinesgarritasunik, duela bederatzi urte Eusko Legebiltzarrean Sozialistok Estatutuaren garapena osatzeko egin genuen proposamena baztertu zutelako, Estatutua karta emana zela esanez, eta haren balore bakarra irteera ate bat izatea zela, eta ez zela transferentziei buruz eztabaidatzeko unea, garai hartan defendatzen zuten “izan erabakitze” unea baizik adieraziz.

Eta duela lau urte euskal botere politiko guztien artean adostutako estatutu erreforma bati ekiteko eskaintza onartu ez zutenak dira.

Estatutua ez betetzea leporatzen digutenak azken bi urteotan hura sistematikoki deslegitimatzen aritu izan diren berberak dira, Estatutua urte luzez kudeatu dutenak, eta orain, beren porrotak ezkutatzeke Euskadi alanbre-hesiz inguratuta dagoen kontzentrazio esparru bat dela sinestarazi nahi digute.

Baina hitzetan soilik ez geratzeko, herrialde honentzako historikoa den egun honetan, euskal gizartearekin, bere askatasunekin eta bere garapen nahiarekin konpromisoak hartu nahi ditut.

Hau da, konpromiso berri bat hartu nahi dut Estatutuarekin, geure autogobernu eremuarekin. Autogobernu eremu sendoarekin eta herrialdearen gehiengoaren babesarekin.

Autogobernu eremu horrek terrorismo totalitario eta ezegonkortzailearen erasoak jasan ditu. Baita irtenbiderik gabeko bide batetik eraman nahi izan gaituztenen abenturak ere.

Eta hori dela eta, Lehendakari izango naizenean, indar politiko demokratiko guztiei dei egingo diet estatutuaren ituna eguneratu eta berreraikitzeko.

Indar politiko guztiei dei egingo diet galdutako akordioak berreskuratzeko eta estatutuaren erreformari ekiteko, horretarako adostasuna badago:

- 1.- Azalpenetan argi uzteko ez garela hutsetik abiatzen, aurrerapena eta modernotasuna ekarri digun Estatutu batetik baizik, eta Estatutu hori demokrazia gehiago, askatasun gehiago eta euskal gizartearentzako herritarren eskubide gehiago lortzeko eta terrorismoa etiko, sozial eta politikoki deslegitimatzeko.
- 2.- Argi uzteko **herritarrak**, eskubide eta betebeharren iturri eta hartzaileak izanik, eta kontzeptu horrek berdin egiten gaituela eta euskal gizartea kohesionatzen duela kontuan hartuta, geure autogobernu sistemaren hasiera eta bukaera direla; eta berdintasun politiko eta sozialak mota guztietako diskriminazioak baztertzen dituela kontuan hartuz, beharrezkoa dela benetan etorkizunera begira landu den Estatutu berri baten hasieran azaltzea.
- 3.- Eskuduntzei buruzko desadostasunak behin betiko ebazteko eta argi ezartzeko adosten ditugun transferentziak lortzeko formulak; baita estatutuko mekanismoak errealitate politiko eta sozial berrietara egokitzeko ere.
- 4.- Geure Estatutua eguneratzeko, Andaluzia eta Kataluniako Estatutuekin egin den bezala, adostasuna eta legezkotasunaren bitartez, geure eskumenekoak diren alorrei buruz herritarrei kontsulta egitea posible izateko formulak bilatuko ditugu, eta kontsultak egiteko daukagun gaitasunaren inguruan hirukoaren Gobernuak gaizki planteatu duen eta interesak tartean dauzkan eztabaidarekin bukatzeko.
- 5.- Estatutuko konpromisoa eguneratu eta ituna berreskuratzeko ahalegin guztiak egiteko, eta horretarako, Konstituzioko eta Estatutuko aparteko baliabideak erabiltzea, foru lurraldeen eskubide historikoei erreferentzia eginez.

Hau da, neure asmoa Estatutuaren erreformari ekitea, eta horren bitartez, geure arauetan adierazten den bezala, euskal gizartearen berrespena lortzeko erreferendum bat egitea da, herrialdearen benetako beharretan oinarrituz eta gutizia alderdikoietatik urrunduz.

Nik ez dut autogobernua ikuspegi estuko harrokeria lokalistak asetzeko edo egun osoa Gobernu zentralarekin borrokatzen emateko nahi.

Nik autogobernua herrialde honek aurrera egitea ahalbidetzeko nahi dut. Guztiok hobeto bizitzea lortzeko. Herritarren askatasunak, segurtasuna eta eskubideak eta Euskadin bizi diren gizon eta emakume guztien garapen ekonomiko eta soziala lortzeko.

Nik Estatutua herrialde bat eta gizarte bat eraikitzeke bermatzen duen autogobernu bat nahi dut, ez euskaldunak izatea ala ez izatearen inguruko alferrikako gatazketan jarraitzeko.

Nik nahi dudana Estatutua gizartean legitimatzea da eta horretarako, herrialdea eraldatzeko eta guztiok hobeto bizitzeko eskaintzen dizkigun instrumentu eta baliabide guztiak, dauzkan gaitasun handi guztiak, erabili nahi ditut.

- Nik Estatutua demokratak batzeko, askatasunak defendatzeko eta ETaren terrorismoa etiko, sozial eta politikoki deslegitimizatzeke nahi dut.
- Nik Estatutua herritarrek gehitzeko, nortasunak gehitu eta adostasunak zabaltzeko nahi dut; elkarrizketa, adostasuna eta akordioaren bitartez guztiona eta guztiontzat den herrialde bat eraikitzeke aurrera egiten jarraitzeko.
- Nik Estatutua Euskadi sozialean aurrera egiteko eta euskal herritarren eskubide eta askatasunak zabaltzen jarraitzeko nahi dut.
- Nik Estatutua krisi ekonomikoari ausarki aurre egiteko nahi dut, enpresaburu eta sindikatuen arteko elkarrizketa bultzatzeko, gizartearen aurrerapenean diagnostiko adostuak eta konpromisoak bilatzeko, ekonomia moderno baten esparruan, produktibitatea, berrikuntza eta ezagutza oinarrituta.
- Nik, azken finean, herrialde bat antolatu eta kohesionatzeko balio duen Estatutu bat nahi dut, lana sortzeko politikak sustatzen dituen Estatutu bat, etxebizitza soziala eraikitzen duena, geure hezkuntza sistema biziberritzen duena, azpiegituren eta modernizazioaren alde apustu egiten duena eta Osasun Publikoaren aldekoa. XXI. mendeko benetako Euskadirentzako Estatutu berri bat.

Eta horrez gain, mugarik gabeko Euskadi batean, mundura irekita bizitzeko Estatutu bat nahi dut. Batzuek autogobernua Euskadiri ateak jartzeko erabili nahi dute.

Nik Estatutuak eskaintzen dituen instrumentu eta baliabideak Euskadi euskaldunok beti egon izan garen eta izaten jarraitu nahi dugun esparruan kokatzeko erabili nahi ditut.

Batzuek Euskadik Kosovoko ispiluan begiratzea nahi dute eta. Nik Euskadik Espainia anitzerantz eta gero eta batuago dagoen eta guztion artean eraikitzen ari garen Europarantz begira jarraitzea nahi dut.

Lagunok:

Hasi bezala bukatu nahi dut, Estatutua bizirik dagoen elementu erabilgarri gisa aldarrikatuz. Arazoak ebazteko pentsatutako errealitate dinamiko gisa, eta ez arazoei betikotzen uzteko; ateak irekitzeko, ez ixteko; elkarriketari ekiteko, eta ez gerran hasteko; geure azken aldiko historian gatazka ezaugarri izan duen atal ilun bat atzean uzteko eta elkarriketa, lankidetzeta eta desberdinen arteko ulermenaren bidera itzultzeko.

Azken finean, Estatutua euskal gizartea eta Euskadirentzat egonkortasun, segurtasun, askatasun eta aurrerakuntza gisa aldarrikatzen dugu eta bizi luzea opa diogu.

Gaur batasun mezu batekin etorri naiz hona eta ez inposizio mezu batekin. Horixe egin zuen EAJk bere garaian guztioi bere alderdiaren himnoa geure Erkidegoaren himno ofizial gisa hartze inposatu nahi izan zigunean.

Ez naiz ikur eta banderen inguruko gerra batean sartuko, baina zalantzarik gabe, euskaldun guztion bihotzetan askatasunaren aldeko beste kantu bat dago, niri geure sinboloen artean sartzea gustatuko litzaidake eta entzutera animatzen zaituztet; kantu hori Gernikako Arbola da.